



6. AKTA

2005eko ekainaren 1ean egindako **TOKIKO GOBERNU BATZARRA.**

LEKUA: Pasaiako Hirian eta Udaletxean.

DATA: Bi mila bosteko ekainaren batean.

BERTARATU DIRA:

Lore Suárez Linazasoro a.
Lucia Querido Noceti a.
Jesús M^a García Garde j. eta
Fco. Javier Pombo González j.

Lehendakaria:

Izaskun Gómez Cermeño Andre Alkatea

Lehenengo deialdian, Izaskun Gómez Cermeño alkate andrea buru dutela eta Joseba Belaustegi Cuesta Behin-behineko idazkari jauna bertan dela, goian aipatutako zinegotziak bildu dira, Tokiko Gobernu Batzarraren bilkura egiteko.

Tokiko Gobernu Batzarra legez osatzeko behar hainbat partaide etorri dela egiaztatu ondoren, lehendakariak 8:30etan bilkurari hasiera eman dio eta gai-zerrendako ondoko puntuak aztertzeari ekin diote:

1.- Aurreko batzaraldiko akta irakurri eta onartzea: 5.zk.a, 05-04-29koa.

Bertaratutakoek goiburuan aipatzen den akta aztertu ondoren guztien adostasunez erabaki dute onartzea eta dagokion akta-liburura transkribatzea.

2.- 05/4 fakturen zerrenda.

Gobernu Batzordeak honako kontuak eta fakturak onartzea erabaki du:

Zk.: 05/4



Zenbatekoa: BERREHUN ETA LAUROGEITA HAMASEI MILA ZAZPIEHUN ETA BEDERATZI EURO ETA HOGEITA HAMASEI ZENTIMO (296.709,36 euro).

3.- 05-04-29ko Tokiko Gobernu Batzarraren akordioaren akatsak zuzentzea (11.puntua).

Euskara Zerbitzuko teknikari eta buru Jaione Urruzola and.ak 2005eko maiatzaren 19an egindako txostena aztertu dugu. Bertan jakitera ematen da 05-4-29ko Tokiko Gobernu Batzarraren akordio batean akatsa dagoela (11. Puntuan), hain zuzen ere Oarsoaldeko Hitzaren diru-laguntzari dagokion puntuan. Horiek horrela, Tokiko Gobernu Batzarrak bertan dauden zinegotzien aho batez eta Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legearen 105.2. artikuluan aurreikusitakoaren babesean, ondokoa

ERABAKI DU

2005eko apirilaren 29an izandako Tokiko Gobernu Batzarraren akordioa zuzentzea, hain zuzen ere Oarsoaldeko Hitzari emandako diru-laguntzari dagokionez. Ondoko aldaketa egingo da:

“Oarsoaldeko Hitzarentzat 12.000 euroko diru-laguntza onartzea” dioen tokian

“Oartzualdeko Hedabideak, S.L.rentzat (Oarsoaldeko Hitza eguneroko prentsa idatzia) 12.000 euroko diru-laguntza onartzea” jarri.

4.- Gizarte-beharrizan Larrietarako Laguntzen aldaketak.

Gizarte Zerbitzuetako arduradunak 2005eko maiatzaren 13an eta maiatzaren 16an aurkeztutako proposamenak, EJ 1/05 proposamenari dagozkion Gizarte Larrialdiko Laguntza Ekonomikoen Aldaketei buruzkoa aztertuta; Tokiko Gobernu Batzarrak, bertako zinegotzien aho batez, ondokoa

ERABAKI DU

LEHENA.- Espedientean agertzen diren onuradunentzat EJ 1/05 proposamenari dagozkien Gizarte Larrialdiko Laguntza Ekonomikoak aldatzea, espedientean jasota dauden arrazoiengatik, bertan agertzen diren kopuruak ezeztatuz.

BIGARRENA.- Aipatutako kopuruak Gizarte Larrialdietako partidan sartzea.

HIRUGARRENA.- Akordio honen berri Kontu-hartzailletza Sailari ematea.

5.- "Puntas Pasealekuaren Urbanizazioaren" obraren 3. ziurtagiria.

Tokiko Gobernuaren Batzarrak, bertako zinegotzien aho batez, erabaki du ontzat ematea hurrengo ziurtagiria:

Zka.: 3

Obra: "Puntas Pasealekuaren Urbanizazioa"

Obra-zuzendariak: Juan Carlos Lapazarán Izargain j. (Arkitektoa).

CONSTRUCCIONES OZIO, S.L. enpresa kontratistaren alde.

Zenbatekoa: HOGEITABI MILA ZORTZIEHUN ETA BERROGEITA HAMAZAZPI EURO ETA HAMAR ZENTIMO (22.857,10 euro).

Indarreango udal aurrekontuko D-1592/04 Disposamenduaren kargura.

6.- "P. Donibaneko Lezo-Bide kalearen 1. fasearen urbanizazioaren" obraren 3. ziurtagiria.

Tokiko Gobernuaren Batzarrak, bertako zinegotzien aho batez, erabaki du ontzat ematea hurrengo ziurtagiria:

Zka.: 3

Obra: P. Donibaneko Lezo-Bide kalearen 1. fasearen urbanizazioa.

Obra-zuzendariak: Juan Carlos Lapazarán Izargain j. (Arkitektoa) eta Aitor Etxaide j. (I.T.O.P. Asmatu).

CONSTRUCCIONES OZIO, S.L. enpresa kontratistaren alde.

Zenbatekoa: BERROGEITA HAMASEI MILA HIRUREHUN ETA HOGEITA HAMAR EURO ETA BERROGEITA LAU ZENTIMO (56.330,44 euro).

Indarreango udal aurrekontuko D-1632/04 xedatutik ordainduko da.

7.- "Trintxerpeko Goiko gunean sarbide berriak eta igogailuen eraikuntzaren" obraren 10. ziurtagiria.

Tokiko Gobernuaren Batzarrak, bertako zinegotzien aho batez, erabaki du ontzat ematea hurrengo ziurtagiria:

Zka.: 10

Obra: Trintxerpeko Goiko gunean sarbide berriak eta igogailuen eraikuntza

Obra-zuzendariak: Juan Carlos Lapazarán Izargain j. (Arkitektoa) eta Aitor Etxaide j. (I.T.O.P. Asmatu).

CONSTRUCCIONES OZIO, S.L. enpresa kontratistaren alde.

Zenbatekoa: HIRUROGEITA HEMERETZI MILA EHUN ETA HIRUROGEI EURO ETA BERROGEITA BAT ZENTIMO (79.160,10 euro).

Indarreango udal aurrekontuko D-1632/04 xedatutik ordainduko da.

8.- "Molinao Errekaren urbanizazioaren 1. fasea. Pasai Antxo" obraren 6. ziurtagiria.

Tokiko Gobernuaren Batzarrak, bertako zinegotzien aho batez, erabaki du ontzat ematea hurrengo ziurtagiria:

Zka.: 6

Obra: Molinao Errekaren urbanizazioaren 1. fasea. Pasai Antxo

Obra-zuzendariak: Iñaki Ormazábal Azkoitia j. (Udal Arkitektoa) eta José M^a Irazusta Garikano (Udal Aparejadorea).

CONSTRUCCIONES OZIO, S.L. enpresa kontratistaren alde.

Zenbatekoa: BERREHUN ETA BI MILA EHUN ETA HIRUROGEITA HAMAIKA EURO ETA LAUROGEITA HIRU ZENTIMO (202.171,83 euro).

Indarreango udal aurrekontuko D-380/04 xedatutik ordainduko da.

9.- "Bizkaia Plaza Urbanizazioaren" obraren 10. ziurtagiria.

Tokiko Gobernuaren Batzarrak, bertako zinegotzien aho batez, erabaki du ontzat ematea hurrengo ziurtagiria:

Zka.: 10

Obra: Bizkaia Plaza Urbanizazioa

Obra-zuzendariak: Eduardo Ramos Platón j. (Arkitektoa) eta Ainara Alvarez Celaya a. (B.U.P.I.)

CONSTRUCCIONES OZIO, S.L. enpresa kontratistaren alde.

Zenbatekoa: EHUN ETA HIRUROGEITA HAMAZAZPI MILA HIRUREHUN ETA HIRUROGEITA HAMABOST EURO ETA BERROGEI ZENTIMO (177.375,40 euro).



Indarreango udal aurrekontuko D-510/04 eta D-511/04 xedatuetatik ordainduko da.

10.- “Trintxerpeko Gran Sol kalearen urbanizaio-proiektua” obraren 6. ziurtagiria.

Tokiko Gobernuaren Batzarrak, bertako zinegotzien aho batez, erabaki du ontzat ematea hurrengo ziurtagiria:

Zka.: 6

Obra: Trintxerpeko Gran Sol kalearen urbanizazio-proiektua.

Obra-zuzendariak: Iñaki Ormazabal Azkoitia (Udal Arkitektoa) eta José M^a Irazusta Garikano (Udal Aparejadorea).

CONSTRUCCIONES ARKAITZA, S.A. enpresa kontratistaren alde.

Zenbatekoa: BERROGEITA HAMASEI MILA LAUREHUN ETA BERROGEITA HAMAR EURO ETA LAU ZENTIMO (56.450,04 euro).

Indarreango udal aurrekontuko D-1237/04 xedatutik ordainduko da.

11.- Itsas Mendi K.K.E.rekin kontratua. Udal Liburutegia.

Udaleko Kultura eta Hezkuntzako Informazio Batzordeak 2005eko apirilaren 14an egindako proposamena aztertu ondoren, Tokiko Gobernu Batzarrak, bertako zinegotzien aho batez, ondokoa

ERABAKI DU

LEHENA.- Itsas Mendi K.K.E.arekin atxikirik dihoan kontratua sinatzea. Kontratuak, udalak Pasai Donibanen irekiko duen liburutegia behin-behinean bertan jartzeko elkarte horrek duen lokala alokatzeko baldintzak jasotzen ditu.

BIGARRENA.- Akordio hau interesdunari jakinaraztea eta honen aurka jar daitezkeen errekurtsioen berri ematea.

Aipatu kantitatea indarreango udal aurrekontuko A-503/05 baimendutik ordainduko da.

12.- Hitzarmena betez Pasaia-Lezo Lizeoari ordainketa.

Kultura eta Hezkuntzako Zinegotzi-Ordezkariek 2005eko maiatzaren 18an proposamena eginda, Tokiko Gobernu Batzarrak, bertaratutako zinegotzien aho batez, ondokoa



ERABAKI DU

LEHENA.- Pasaia-Lezo Lizeoari 62,191,80 euro ordaintzea 05.481.422.00.02 Lizeoarekin Hitzarmena partidatik, Pasaia-Lezo Lizeoak eta Pasaia Udalak sinatua duten Hitzarmenaren arabera.

BIGARRENA.- Erabaki hau interesdunari jakinaraztea, honen aurka jar ditzakeen errekurtsoen berri emanez.

Hau guztia indarrean den udal aurrekontuko A-525/05 baimendutik ordainduko da.

13.- Jarduera-lizentzia, bulegoa Esnabide, 14an. Juan Velascoren oinordekoak eta Velaspex.

Ondorengo aurrekariak kontuan hartu dira:

2004ko uztailaren 5ean Juan Velascoren oinordekoek eta VELASPEX, S.L.k Esnabide, 14.zk.an dauden jarduerak legeztatzen dokumentazioa aurkeztu zuten, eta ondokoa eskatu zuten: *“jardueraren luzapena epe ertainean, lokal hauek hiritarrak direlako eta udalak baduelako horren berri”*.

Ezinezkoa da jardueraren luzapena ematea, udalak ez dituelako inoiz lizentziak eman.

Jarduera horiek kaltegabeak dira, ez daudelako Jarduera Gogaikarri, Osasungaitz, Kaltegarri eta Arriskutsuen Araudian sailkatuta.

Eskatutako jarduera bat dator Pasaian indarrean dagoen araudiaren arabera egiten den lurzoruen kalifikazioarekin, hiri-lurra baita; 8. sektorearen barruan dago: “Finantza-erakundeak, aseguruak, enpresei ematen zaizkien zerbitzuak eta alokairuak”; 849. adarrean: “Enpresei ematen zaizkien beste zerbitzu batzuk.....”, eta hirugarren sektorearen barruan bulego kalifikazioa du.

Jardueraren azalera 1.126,67 m²koa da.

Lokalak dauden eraikina gaur egun atxikita dago Pasaia Arau Subsidiarioen aldaketa puntualari, hain zuzen ere “Zamatete” 2.02 HJEari dagokion aldaketari. Proiektuari hasierako onospena eman zaio eta lizentziak ematea bertan behera geratu da.

Lizentziak ematea bertan behera geratu aurretik lizentzia eskuratu ez izanaren arduradunak interesdunak dira.

Kontuan hartu dugu Hirigintza Planeamenduko Araudiaren 121.2. artikulua.



Tokiko Gobernu Batzarra da lizentzia-eskaeren inguruko erabakiak hartzeko eskumena duen organoa, txosten erabakigarria aldekoa ez denean, eskumenak eskuordetzeko alkatetzaren Dekretuaren arabera (2003ko ekainaren 19koa).

Horiek horrela, Tokiko Gobernu Batzarrak bertako zinegotzien aho batez, hurrengo akordioa

ERABAKI DU

LEHENA.- Juan Velascoren oinordekoei eta VELASPEX, S.L.ri Esnabide, 14.zk.an dagoen bulego jarduerarako lizentzia ukatzea, eremu horretan lizentziak ematea bertan behera geratu delako eta lizentzia hori emateak etorkizuneko antolamendua arriskuan jarriko lukeelako.

BIGARRENA.- Interesdunei udal eskubideak likidatzea, behar bezala jakinarazi ondoren.

HIRUGARRENA.- Akordio honen berri interesatuari ematea legozkiokeen errekurtsoekin.

14.- Jarduera-lizentzia, Pasai Antxoko kaiko 4. biltegia bis. Algeposa

Ondorengo aurrerakiak kontuan hartu dira:

Gregorio Esparza Mugika jn.ak Estibadora Algeposa S.A.ren izenean jarduera eta obra lizentzia eskatu zituen 2004-05-19an, Pasai Antxoko kaiko portualdean industri-biltegia eraikitzeko, itsas komandantziaren eta 5. biltegiaren artean dagoen orubean. Horrekin batera jarduerako proiektu teknikoa aurkeztu zuen Construbrik, S.L.ko Alberto Insausti Laencinak idatzia eta 2004ko maiatzaren 12an ikus-onetsia.

Halaber, biltegia egokitzeko oinarrizko proiektua ere aurkeztu du, teknikari berak sinatua eta 2004ko martxoaren 10ean ikus-onetsia.

Jarduera HIRI-LURREAN dago kokatua eta ondoko kalifikazio orokorra du: PORTUKO INDUSTRIALDEA.

Pasaiako AASSen 170. art.aren kodifikazioaren arabera 752. epigrafean dagokio, 1. eta 2. kategoriatik kanpo eta 3. kategoriaren barnean. IGOKA Jardueren Proiektua eskatuko zaio.

Halaber, jarduera sailkatutzat jasota dago otsailaren 27ko 3/1998 Legean, II. eranskina aplikatu beharreko jardueren zerrendan, eta ondorengo sailkapena du: “*d) industrial oro har*”.

Korporazioaren txostena, 3/1998 Babes Lege Orokorraren 58. 3. Artikuluan adierazten dena, aurkakoa da. Egin beharreko izapideak egin dira: zehazki, aparejadorearen eta korporazioko idazkariaren txostenak eskuratu dira; halaber, Osakidetzak 2005eko urtarrilaren 31n egindako



aldeko txostena, eta Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendu Sailak 2005eko martxoaren 14an egindako txostena.

Lizentzia eskatutako jardueraren azalera erabilgarria 6.300,00 m²koa da.

Jardueraren egokitze-lanen aurrekontua, behin lantegia egin ondoren, 62.332,00 eurokoa da.

EAEko 3/1998 Ingurumena Babesteko Lege Orokorren 55. eta 61. artikuluetan oinarrituta.

Lizentzia ematea edo ez ematea erabakitzeko eskumena duen organoa Tokiko Gobernu Batzarra da, espedientean dagoen txostena eskaeraren aurkakoa denean, alkatetzak 2003ko ekainaren 19an eskumenak eskuordetzeari buruz emandako Dekretuaren arabera.

Horiek horrela, Tokiko Gobernu Batzarrak bertako zinegotzien aho batez, ondokoa

ERABAKI DU

LEHENA.- Gregorio Esparza Mugika jn.ari, Estibadora Algeposa S.A.-ren izenean, lizentzia ematea, industri-jarduera eta biltegia egokitzeko lanak egiteko Pasai Antxoko kaiko portualdean, itsas komandantziaren eta 5. zk.ko biltegiaren arteko orubean. Ondoko baldintzak bete beharrekoak dira:

a) Obrak hasi aurretik:

Jardueraren soinu-igorpenei buruzko proposamena aurkeztu behar dute, eraikin osoarena, Pasaiako AASSen ondoko artikulua betetzen dituen:

“216. Artikulua. KARGA ETA DESKARGARI BURUZ (ZARATAK).

Merkantzien karga eta deskarga eta kaxa, edukiontzi, eraikuntzako material eta antzeko objektuen maneiaketa guztiz debekatuta dago 22etatik biharamuneko 7ak arte, zabor bilketa eta jakien banaketa salbuesirik. Lanaldiaren gainontzeko orduetan, lan horiek ahalik eta arretarik haundienaz burutu beharko dira molestiak gutxitu eta behar diren tara soilik murrizteko.

Edozein kasutan ere, 218. artikulua aurrikusitako gehienezko zarata maileri egingo zaie kasu.

Beharrezkoa izanez gero, behar diren neurri zuzentzaileak hartuko dira edo zehaztutako ordutegiari lotu.

217. Artikulua. ZARATAK EDOTA BIBRADURAK SORTARAZ DITZAKETEN MAKINAK ETA APARAILUAK.

Makinak eta instalazio finko nahiz mugikorrek ezin izango dira, zaratak edota bibradurak sortaraziz gero, eraikinetako mehelin, sapai, forjatu eta egiturazko ezin elementuren gainean ezarri.

Beren instalazioa basamentu edo bibraduren aurka propio jarritako elementuen gainean egin beharko da, eta beren egokitasun teknikoa proiektuaren dokumentazioan justifikatu ere bai.

Erregimen bortxatuzko jario, aireztapen, klimatizazio eta aire konprimituaren desplazamendurako hodi eta ekipamenduak elementu elastikoak erabiliz eutsiko dira egituran. Tutu edo hoditeriekiko konekzioak ere lotura edo dispositibo elastikoz egingo da.

Arreta deitzeko sistemak, hala nola, sirenak, alarmak, etab., premiazko egoeretan baino ezin izango dira erabili (lapurketa dela, sutea dela, e.a...).

218. Artikulua. ZARATA MAILAK.

Gune hartzailea Zona de recepción	Soinu-maila kan.(db) Leq 1 Nivel sonoro en ext.(db) en Leq 1'		Soinu-maila barru(db)Lez 1 Nivel sonoro int. (db) en Leq 1'	
	EGUNEZ DIURNO	GAUEZ NOCTURNO	EGUNEZ DIURNO	GAUEZ NOCTURNO
Denak industrialia izan ezik Todas excepto industrial	55	45	30 (logelan /en dormitorio) 35 (beste gela batzuetan /en otras hab.)	25 30
Industrialia Industrial	65	60	40	35

DB (A)-tan adierazitako mailak.

22etatik biharamuneko 8ak arte doan aldia hartzen da gaualdizat.

219. Artikulua. GEHIENEZKO DARDARA MAILAK.

Gune hartzailea Zona de Recepción	Soinu-maila kan.(db) punta-puntan Nivel sonoro en ext. (db) en punta		Soinu-maila barru (db) Leq 1 Nivel sonoro int. (db) en punta	
	EGUNEZ DIURNO	GAUEZ NOCTURNO	EGUNEZ DIURNO	GAUEZ NOCTURNO
Denak, industrialia izan ezik Todas excepto industrial	60	55	40 (logelan /en dormitorio) 45 (beste gela batzuetan en otras habitaciones)	25 40

Industrialia			
Zona industrial	75	70	50

DB (A)-tan adierazitako mailak.

22etatik biharamuneko 8ak arte doan aldia hartzen da gaualditzat.

- b) Zehaztu egingo da jarduerak itsasora edo atmosferara egingo dituen isuriak, halakorik izango bada behintzat.
- c) Ondoko txostenetan adierazitako neurri zuzentzaileak bete behar dira: Osasun Sailaren txostena, 2005eko urtarrilaren 31koa, eta Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Sailburuordetzak neurri zuzentzaileak ezartzeari buruz egindako txostena, 2005eko martxoaren 26koa. Erantsita doaz bi txosten horien kopiak.
- d) Justifikatu egingo dute metalezko materialen erradiologia zaintzeko lankidetzaprotoakoloa bete dela. Protokolo hori 1999ko azaroaren 2an sinatu zuten ondoko hauek: Industria eta Energia Ministerioa, Sustapen Ministerioa, Segurtasun Nuklearerako Kontseilua, Hondakin Erradioaktiboen Enpresa Nazionala, Enpresa Siderurgikoen Elkarte eta Suspertzerako Espainiar Federazioa. Zehazki, eranskin teknikoaren 5.5. atalean ageri diren zaintza- eta kontrol-neurriak ezarri behar dira.
- e) Jarduera Industria eta Energia Ministerioaren erregistroan izena eman behar dute.
- f) Jarduerak martxan jarri aurretik, txatarraren zama-lanetan ezarri beharreko neurri zuzentzaileak adierazi eta justifikatu behar dituzte.
- g) Gainontzeko baldintzak honako hauek dira:
1. Lokalera sartzeko ate guztiak kanporantz irekiko dira eta irekitzerakoan ez dute jabari publikoa hartuko, hau da, fatxada-lerroaren barruan egongo dira.
 2. Barruko ate guztiek irisgarritasunari buruzko 20/1997 Legean eta 68/2000 Dekretuan ezarritakoa beteko dute, eta 0,80 m-ko zabalera librea izango dute;

kanpoko ateen, aldiz, 0,90 m-koa.
 3. Lokalak 2,80 m-ko altuera librea izango du jendea egoteko tokietan eta 2,25 m-koa komunetan eta biltegian.
 4. Sukalde eta komunetan, paramentu horizontal eta bertikalen arteko loturak ahurrak izango dira.

5. Fatxadara ematen duten aireztatzeko saretxoek espaloia-aren sestratik edo bide publikotik, gutxienez, hiru metrora egon behar dute, bizilagun eta oinezkoen enbarazurik egin gabe.

Fatxadako saretxoak aire egokituaren botatze- eta hartze-sistamarako bakarrik erabiliko dira, eta komun eta gunen publikoaren aire biziaria ateratzeko edo berriztatzeko, edo instalazio-geletatik beroa atera arazteko.

Sukalde eta galdarako aire biziaria, gas eta keak eraikinaren barrutik, horretarako berezia den hodi bidez aterako dira, harik eta estalkia gainditzen duten arte, eta bizilagunak inolako zarata, usain, bibrazio edo transmisio termikorik sortu gabe.

6. Instalazio hau behe tentsioko Elektronika-arauegia jasotzen dena betez egingo da. Horretaz gain, gai honekin bat datorren arautegia bete beharko da.
7. Halaber, UOOOen 218. artikuluan soinu-mailari buruz adierazten dena bete behar dute: batetik, minutu batean Leq-en maila jarraian dagokionez, 22ak bitarte ezin dira 30 dB(A) gainditu eta goizeko 8ak arte ezin dira 25dB(A) gainditu; eta bestetik, logela, sukalde eta egongelatako punta-puntako gehiengo balioetan ezin dira 40 dB(A) gainditu 8etatik aurrera ez eta 25 dB(A) ere 22etatik aurrera. Neurketa hori egiten denean udal teknikaria bertan egotea eskatuko dute.
8. Obrak egin ondoren, udalari guztia ikuskatzeko eskatuko diote; eskaerari erantsita ondoko agiri hauek aurkeztuko dituzte:
- Homologatutako enpresa batek egindako neurketei buruzko txosten teknikoak, dagokion teknikari eta elkargoak ikus-onetsia.
 - Instalazio elektrikoaren ziurtagiria (lotura-buletina), Eusko Jaurlaritzako Industria ordezkariak baimendua.
 - Obra amaierako ziurtagiria, dagokion teknikari eta elkargoak ikus-onetsia, behin betiko planoekin, hala badagokio.
 - Obren azken kostuaren likidazioa.
 - Txatarraren zama-lanetan ezarriko diren neurri zuzentzaileak.

- Industria eta Energia Ministerioaren erregistroan izena eman dutelako egiaztatzea, Metalezko Materialen Erradiologia Zaintzeko Protokoloaren jarraipenari dagokionez.
- Hainbat alderdiren justifikazioa: erradiologia zaintzeko eta kontrolatzeko sistemaren ezarpen eta instalazioa; langile tekniko espezialistak; aldi baterako kokaleku eremuak eta jarduketa-prozedurak; langileentzako oinarritzako prestakuntza plana, babes eta zainketari buruzkoa.
- Zinpeko aitortzen bidez ondoko konpromisoa hartuko dute: metalezko materialen inportazio edo erkidegoen arteko merkataritzako bidaltzaileari merkantziaren ikuskatze-ziurtagiria eskatzekoa. Ziurtagiri hori fidagarritasun aitortua duten erakundeek egina izango da; eta bertan jasoko da instalazio horietan sistema egokiak dauzkatela bidalitako metalezko materialen erradiologia zaintzeko eta kontrolatzeko, eta merkantzia sistema horietatik pasatu dela.
- Zinpeko aitortzen bidez ondoko konpromisoa hartuko dute: aurreko puntuan adierazitako ziurtagiria ez duten materialak ez lehorreratzekoa.
- Enresarekin sinatutako kontratuaren kopia, aipatutako protokoloaren eranskin teknikoaren 5.5. atalean aipatzen den materiale erradioaktiboen kudeaketarako.

HIRUGARRENA.- Udal eskubideak likidatzea, behar bezala jakinarazi ondoren.

LAUGARRENA.- Akordio honen berri interesatuari ematea legozkiokeen errekurtsoekin.

15.- Konpentsazio proiektua onartzea. Orbela, S.A.

Ondorengo aurrerakiak kontuan hartu dira:

Hirigintzako Zinegotziak 2005eko otsailaren 21ean 2.04.02 Gran Sol 2-4 Exekuzio Unitateari dagokion jabe bakarreko Konpentsazio Proiektuari hasierako onespina ematea erabaki zuen, hain zuzen ere, "ORBELA, S.A."k aurkeztu eta José María Abad Urruzola eta Ana Goñi Agudo Letraduek 2004ko azaroan idatzitakoari.

Proiektua jendaurrean jarri zen, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta jabe eta beste eskubidedunei banan bana jakinarazi eta gero. Emandako epean Gran Sol 8-10eko etxejabeek alegazio idatzi bat aurkeztu zuten eta bertan adierazten dute bere partzelaren zati bat aipatutako exekuzio unitatean sartzen dela.

Donostiako Jabetzaren 5. Erregistroak jabetza eta kargei buruzko ziurtagiria igorri digu, eta bertan egiaztatzen da Exekuzio Unitatean kokatzen diren partzelen gainean BBVAren aldeko hipoteka bakarra dagoela.

Udal teknikariak txostena egin du 2005eko maiatzaren 12an eta bertan alegazioa ezestea proposatzen du.

Orbela, S.A.k hasierako onarpenerako aurkeztutako dokumentua zuzendu du, Udal honek eskatu bezala.

Udalbatzak 2005eko apirilaren 5eko batzarrean Exekuzio Unitateari dagokion arropetxamenduaren % 10aren monetarizazioa onartu zuen.

Unitateko karga eta etekinen banaketa eta Udalari derrigorrezko lagapenak egin ondoren, obra lizentzia eskuratu dezakete.

Kontuan hartuta Hirigintzako Kudeaketari buruzko Araudiaren 178. artikulua

Tokiko Gobernu Batzarra da behin betiko onarpena emateko organu eskuduna; izan ere, Alkate Andreak 2003ko ekainaren 19an bere gain utzi zuen hirigintzako kudeaketarako tresnen behin betiko onarpena emateko eskurantz.

Tokiko Gobernu Batzarrak bertako zinegotzien aho batez, hurrengo akordioa

ERABAKI DU

LEHENENGOA.- Ezestea Gran Sol 6-8ko jabekideen izenean ari den Mari Carmen Iribar Elizegik 2.04.02 Gran Sol 2-4 E.U.-ko Konpentsazio Proiektuari aurkeztutako alegazioa; izan ere, eremuan ez dute inolako jabetza edo bestelako eskubiderik.

BIGARRENA.- Behin betiko onospena ematea 2.04.02 Gran Sol 2-4 Exekuzio Unitateari dagokion jabe bakarreko Konpentsazio Proiektuari, hain zuzen ere, José María Abad Urruzola eta Ana Goñi Agudo Letraduek 2005eko apirilean idatzitakoari.

HIRUGARRENA.- Akordio honek indarra izateko, Orbela, S.A.k 177.811,81 euro ordaindu beharko ditu, Exekuzio Unitatean Udalari dagokion aprobetxamenduaren % 10-aren monetarizazioaren ordainetan.

LAUGARRENA.- Donostiako Jabetzaren 5. Erregistroari Konpentsazio proiektua inskribatzeko eskatzea, eta baita ere, partzela pribatuak behin-behineko likidazioa-kontuaren ordainketari afektatzeko, 18.754,00 eurokoa izanik. Hau dena Hirigintz Kudeaketaren Arautegiko 126 artikulua araber.

BOSGARRENA.- Kontu-hartzaitzari udal eskubideak likidatzeko agintzea behar bezala jakinarazi eta gero; baita ere, Jabetzaren Erregistroak egindako ziurtagiria (255/2005) likidatzea, 428,76 eurokoa dena.

SEIGARRENA.- Erabaki hau eremuko jabe bakarrari eta gainontzeko interesdunei jakinaraztea.

ZAZPIGARRENA.- Akordio hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzeko agintzea, Hirigintzako Gaiak Jabetza-erregistroan Inskribatzeko Erregelamendua onartzen duen 1.093/1997 Errege Dekretuaren 7.1 artikulua xedatzen duenari jarraituz.

16.- Obra baimena, Salinas, 3.

Salinas, 3ko Jabekideek bertako eraikinean gas-instalazioa egiteko eskaera aurkeztu zuten. Eskaera hori aztertu ondoren, Tokiko Gobernu Batzarrak, bertako zinegotzien aho batez, ondokoa

E R A B A K I D U

LEHENA.- Salinas, 3ko Jabekideei eskatu duten lizentzia ematea ondorengo baldintzekin:

- a) Aipatutako instalazioak behin betiko martxan jartzeko enpresa erantzuleak egin beharko dio azken azterketa eta ikuskapena, eta nahitaez eduki beharko du Industria Ministerioaren Ordezkaritzak agintzen dituen baimenak.
- b) Eraikineko jabekideek ezingo dituzte jarri galdara, metagailu, berogailu, depositu eta horrelako tresnarik balkoietan, terrazetan edota kale aldera ematen duten fatxadetan eta jendeak ikusteko moduan.
- c) Aparatuak balkoietan jartzekotan, proiektu tekniko bat egin beharko da aparatuek okupatzen duten espazioa ixteko eta uniformitate, homogeneitate eta batasunaren irizpideak mantzentzeko eta indarrean den udal araudiaren arabera udalak onarpena eman diezaion proposamena egin beharko zaio.
- d) Pasaiako Arau Subsidiarioen 062 artikulua arabera, eraikita dauden eraikinetan gasak eta kea teiltura bideratzeko hodiak barrutik jartzea ezinezkoa denean eta igogailuak jartzea ezinezko adenean, udalak baimendu ahal izango du instalazio hauek patio horien fatxadei erantsita jartzea, estalkiraino. Horretarako, teknikari eskudun batek sinatutako proiektu teknikoa aurkeztu behar dute, ikus-onetsi ofiziala duena. Ez da baimentzen sukaldeko aparatuen eta/edo berogailuaren gasak eta kea zuzenean kanporatzea.
- e) Pasaiako AASSen 072 artikuluan adierazten da etxebizitzetan NTE-ISH eta NTE-ISV araudiak bete behar direla; eta horien arabera, galdarako gasak eta keak estalkira kanporatuko dira, horretarako espresuki jarritako hodi baten bidez.
- f) Aurreko puntuan aipatzen dena ezinezkoa izanez gero, eta hau teknikoki frogatu beharko litzateke, uztailaren 12ko 2000 (BOPV 19/09/00 Agindua bete beharko da eta etxebizitzetan gasifikazio eta berogailuen instalazioei buruz esaten dena.

- g) Gas Pasaiaren baimena.
- h) Pasaiako AASSen 175 artikularen arabera, finka bakoitzaren hargune nagusitik kontsumitzeko lekuetaraino gorako kanalizazio bertikalak barru aldeko patioetatik joango dira beti edota kondukzio-kaxatik (aireztatua eta sarbideduna); kanpoaldeko fatxadatik oso disimulatua geratzen bada bakarriik izango da onartua (esekitokien barrutik, sareta barrutik kaxa aireztatutik ea. edo fatxadaren konposizio arkitektonikoaren barruan ongi egokituko den soluzioren baten bidez).
- i) Presioaren kaxa erregulatzailerak begi-inpaktu gutxien izango duten horma-ataletan jarriko dira.
- j) Aukeratutako fatxadan ahalik eta modurik ezkutuen erabiliko da.

BIGARRENA.- Interesdunari akordio hau jakinaraztea eta honen aurkako errekurtsoen berri ematea.

HIRUGARRENA.- Akordio honen berri Udal Kontuhartzaitzari ematea dagozkion tasak eta zergak likidatzeko.

Lizentzia honetako lanen aurrekontua 5.409,00 eurokoa da eta horietatik 2.434,05 € eraikinaren elementu erkieei dagokie.

17.- Obra baimena, Arrandegi, 10-10bis.

ELENA DE JESUS CRISTA and.ak Arrandegi, 10-10 bis eraikinean gas-instalazioa egiteko eskaera aurkeztu zuen. Eskaera hori aztertu ondoren, Tokiko Gobernu Batzarrak, bertako zinegotzien aho batez, ondokoa

E R A B A K I D U

LEHENA.- ELENA DE JESUS CRISTA andreari, eskatu duen lizentzia ematea ondorengo baldintzekin:

- a) Aipatutako instalazioak behin betiko martxan jartzeko enpresa erantzuleak egin beharko dio azken azterketa eta ikuskapena, eta nahitaez eduki beharko du Industria Ministerioaren Ordezkaritzak agintzen duena.
- b) Eraikineko jabekideek ezingo dituzte jarri galdarak, metagailuak, berogailuak, deposituak ea. bezalako aparatuak balkoietan, terrazetan edota kale aldera ematen duten fatxadetan eta jendeak ikusteko moduan.
- c) Aparatuak balkoietan jartzekotan, proiektu tekniko bat egin beharko da aparatuek okupatzen duten espazioa ixteko eta uniformitate, homogeneitate eta batasunaren irizpideak mantzentzeko

eta indarrean den udal araudiaren arabera onarpena eman diezaion proposamena egin beharko zaio.

- d) Pasaiako Arau Subsidiarioen 062 artikularen arabera, eraikita dauden eraikinetan gasak eta kea teiltura bideratzeko hodiak barrutik jartzea ezinezkoa denean eta igogailuak jartzea ezinezko adenean, udalak baimendu ahal izango du instalazio hauek patio horien fatxadei erantsita jartzea, estalkiraino. Horretarako, teknikari eskudun batek sinatutako proiektu teknikoa aurkeztu behar dute, ikus-onetsi ofiziala duena. Ez da baimentzen sukaldeko aparatuen eta/edo berogailuaren gasak eta kea zuzenean kanporatzea.
- e) Pasaiako AASSen 072 artikuluan adierazten da etxebizitzetan NTE-ISH eta NTE-ISV araudiak bete behar direla; eta horien arabera, galdarako gasak eta keak estalkira kanporatuko dira, horretarako espresuki jarritako hodi baten bidez.
- f) Aurreko puntuan aipatzen dena ezinezkoa izanez gero, eta hau teknikoki frogatu beharko litzateke, uztailaren 12ko 2000 (BOPV 19/09/00 Agindua bete beharko da eta etxebizitzetan gasifikazio eta berogailuen instalazioei buruz esaten dena.
- g) Gas Pasaiaren baimena.
- h) Pasaiako AASSen 175 artikularen arabera, finka bakoitzaren hargune nagusitik kontsumitzeko lekuetaraino gorako kanalizazio bertikalak barru aldeko patioetatik joango dira beti edota kondukzio-kaxatik (aireztatua eta sarbideduna); kanpoaldeko fatxadatik oso disimulatua geratzen bada bakarriik izango da onartua (esekitokien barrutik, sareta barrutik kaxa aireztatutik ea. edo fatxadaren konposizio arkitektonikoaren barruan ongi egokituko den soluzioren baten bidez).
- i) Presioaren kaxa erregulatzailak begi-inpaktu gutxien izango duten horma-ataletan jarriko dira.
- j) Aukeratutako fatxadan ahalik eta modurik ezkutuen erabiliko da.

HIRUGARRENA.- Interesdunari akordio hau jakinaraztea eta honen aurkako errekurtsoen berri ematea.

LAUGARRENA.- Akordio honen berri Udal Kontu-hartzaitzari ematea dagozkion tasak eta zergak likidatzeko.

Lizentzia honetako lanen aurrekontua 4.201,08 eurokoa da eta horietatik 2.398,08 € eraikinaren elementu erkieei dagokie.

18.- Ondare erantzukizunaren inguruko hainbat erreklamazio.

A) Consuelo Sampedro Ramos and.ak egindako ondare-erreklamazioa.

CONSUELO SAMPEDRO RAMOS and.ak ondare-erantzukizuneko erreklamazioa aurkeztu zuen, 2004ko ekainaren 15ean Ulia etorbideko 11. zk. parean erori eta horren ondorioz izandako kalteengatik; izan ere, inguru horretan (Azkuene-Ulia-Errenteria) hiritartze-lanak egiten ari ziren eta galtzadan harritxoak zeuden.

Aurrekariak eta espedientean dagoen gainerako dokumentazioa aztertu ondoren, Tokiko Gobernu Batzarrek, bertan dauden zinegotzien aho batez, ondokoa

ERABAKI DU

LEHENA.- CONSUELO SAMPEDRO RAMOS and.ak aurkeztutako erreklamazioa ezestea, ondoko arrazoietan oinarrituta:

1.- Gertaera izan zen tokian denbora luzea zeramaten hiritartze-lanak egiten (2003ko ekaina), beraz, erreklamatzailleak bazuen horren berri, bere etxebizitza gertu baitago (Jaizkibel, 10).

2.- Erori zen tokia oinezkoak ibiltzeko egoera onean zegoen, eta erreklamatzailea bere jokabide eta arreta faltagatik erori zen; izan ere, bertan obrak egiten ari zirela jakin arren, ez zituen hartu beharreko neurriak hartu.

3.- Obrak bazeuzkan behar adina babes-neurri, segurtasun-neurri eta baliza, oro har eskatzen direnak.

4.- Obrak dauden tokietatik ibiltzean arreta berezia jarri behar da eta erreklamatzailleak ez du hori bete.

5.- Erreklamatzailleak arduragabekeriaz jokatu du, eta horrek hautsi egiten du zerbitzu publikoaren eta erreklametzen den erorketaren arteko lotura kausala.

BIGARRENA.- Akordio hau interesdunari jakinaraztea eta horren aurka jar daitezkeen errekurtsoen berri ematea.

B) José Luis Iparraguirre Rojo jn.ak egindako ondare-erreklamazioa.

JOSE LUIS IPARRAGUIERRE ROJO jn.ak erreklamazioa aurkeztu zuen 2005eko martxoaren 4an bere ibilgailuan (2.022-BLH matrikula duena) izandako kalteengatik; izan ere, Zamatete aldetik datorren errepidearen bihurgunea hartu eta San Pedroko biribilgunera zihoala Frontoiko Zumardian dagoen gontza jo zuen.

Udaltzaingoak egindako parteaz aztertu ondoren, Tokiko Gobernu Batzarrak, bertan dauden zinegotzien aho batez, ondokoa

ERABAKI DU

LEHENA.- JOSE LUIS IPARRAGUIERRE jn.ak egindako erreklamazioa ezestea, ondoko arrazoietan oinarrituta:

- 1.- Erreklamatzailerak ezagutzen zuen tokia eta bazekien bertan gontzak zeudela.
- 2.- Badago nahikoa toki biraketa-maniobra egiteko.
- 3.- Ibilgailuan izandako kalteak gidariaren zuhurtziagabekeriak eragin zituen.

Horregatik guztiagatik, kalte eta udal zerbitzuaren funtzionamenduaren arteko lotura kausala hautsi egiten da.

BIGARRENA.- Akordio hau interesdunari jakinaraztea eta horren aurka jar daitezkeen errekurtsioen berri ematea.

HIRUGARRENA.- Zerbitzu, Sare eta Mantentze-lanen Sailari akordio honen berri ematea, José Luis Iparraguirre Lojo jn.ari dagokion erreklamazioa egiteko, gontzean eragindako kalteengatik.

C) Rosa M^a Begue Cortes and.ak egindako ondare-erreklamazioa

ROSA M^a BEGUE CORTES and.ak erreklamazioa aurkeztu zuen, 2005eko apirilaren 2an erori egin zelako: Gelasio Aranburu kalean, Blas de Lezo kalearekin gurutzatzen den tokian, erori zen, bertan dagoen estoldaren egoeragatik.

Galtzada ibilgailuentzako da eta horretarako bakarrak prestatuta dago.

Galtzadaren bi aldeetan espaloiak daude eta erreklamatzailerak erori zen tokitik metro gutxira oinezkoen pasabidea dago. Beraz, kale horretan oinezkoak inolako arazorik gabe ibil daitezke, galtzadatik pasatzeko beharrik gabe.

Galtzada ez da oinezkoak ibiltzeko toki egokia, ezta baimendua ere.

Beraz, istripuaren kausa bakarra da erreklamatzaileraren era desegokian ibili zela, eta ez dago inolako lotura kausalik zerbitzuaren funtzionamendu eta kaltearen artean. Horiek horrela, Tokiko Gobernu Batzarrak, bertan dauden zinegotzien aho batez, ondokoa

ERABAKI DU

LEHENA.- ROSA M^a BEGUE CORTES and.ak egindako erreklamazioa ezestea; izan ere, udalaren iritzian ez dago administrazioaren ondare-erantzukizunik, erorketaren eta izandako kalteen artean ez dagoelako lotura kausalik; inori egoztekotan, kalte horiek erreklamatzaileraren jokabideari egoztekoak dira.

BIGARRENA.- Akordio hau interesdunari jakinaraztea eta honen aurka jar daitezkeen errekurtsioen berri ematea.

D) Aritz Astarbe Alvarado jn.ak egindako ondare-erreklamazioa.

ARITZ ASTARBE ALVARADO jn.ak ondare-erantzukizuneko erreklamazioa aurkeztu du, bere ibilgailuaren aurreko eskuin-hegalean eragindako kalteengatik (SS-7985-AG); izan ere, 2005eko maiatzaren 7an Uliar etorbideko 20. zk.an dagoen pasabidea oztopatzen zuela-eta ibilgailua mugitzen saiatu ziren eta kalteak eragin zizkioten.

Pasabidetik ibilgailua kentzeko saiakeran parte hartu zuen udaltzainaren agerraldia aztertu ondoren, Tokiko Gobernu Batzarrak, bertan dauden zinegotzien aho batez, ondokoa

ERABAKI DU

LEHENA.- ARITZ ASTARBE ALVARADO jn.ak egindako erreklamazioa ezestea, ondoko arrazoiegatik:

- Ibilgailua ez zen garabiarekin mugitu, eta ez zen aurreko eskuin-hegala ukitu.

BIGARRENA.- Erabaki hau interesdunari jakinaraztea eta honen aurka jar daitezkeen errekurtsioen berri ematea.

E) Enrique Luis Vázquez Gondade jn.ak egindako ondare-erreklamazioa.

2005eko apirilaren 18an ENRIQUE LUIS VAZQUEZ GONTADE jn.ari jakinarazi zitzaion Tokiko Gobernu Batzordeak 2005eko otsailaren 23an hartutako erabakia, hain zuzen ere, hark 2004ko uztailaren 30ean jarritako ondare-erreklamazioa ezesten duena.



2005eko maiatzaren 19an berraztertze errekurtsoa aurkeztu zuen.

Idazki hori epez kanpo aurkeztu zen; izan ere, azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 117.1. artikulua hilabeteko epea aurreikusten du, eta lege beraren 48.2. artikuluan aurreikusitako arauaren arabera, maiatzaren 18a zen azken eguna.

Tokiko Gobernu Batzarrak, bertan dauden zinegotzien aho batez eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legeko 113.1. artikuluan aurreikusitakoarekin bat, ondokoa

ERABAKI DU

LEHENA.- ENRIQUE LUIS VAZQUEZ GONTADE jn.ak aurkeztutako berraztertze-errekurtsoa ez onartuzat ematea, epez kanpo aurkeztu duelako. Berraztertze-errekurtso hori 2005eko otsialaren 23an Tokiko Gobernu Batzarrak hartutako erabakiaren aurkakoa zen, hain zuzen ere, 2004ko uztailaren 30ean izandako kalteengatik jarritako ondare-erreklamazioa ezesten zuena.

BIGARRENA.- Erabaki hau interesdunari jakinaraztea eta honen aurka jar daitezkeen errekurtsoen berri ematea.

Eta, beste gairik ezean, 10:00etan batzarra amaiturik, nik, idazkariak, alkate andrearen oniritziarekin, akta hau egiten dut, bertan eztabaidatu eta erabakitakoa jasota gera dadin